

Asteartean jarduerari berriro ekitea espero du Coudray enpresak


Anartean, listeria bakterioa ezabatzeke garbiketa eta desinfekzio lanei ekin die

Allande Sokarros / Baiona

Listeriosis gaixotasunaren beste kasurik ez zen hauteman atzo. Sarthe departamenduko kontserbategi batetik abiatu zen hori. Coudray enpresako zuzendari batek atzo erran zuenez —joan den ostiralean, jarduera gelditzeko agindu zion administrazioak enpresari—, jarduerari berriro ekingo diote datozen astearte arratsa eta osteguna bitartean, baldin eta administrazioak baimenik ematen badie. Anartean, lantokiaren erabateko deskontaminazioa egingo dute.

OLIVIER BOZO Conneré herrian (Sarthe) kokatutako Coudray enpresako zuzendari batek prentsari jakinarazi zionez atzo, kontserbategiak bere jarduerari ekingo dio datorren asteke astearte arratsa eta osteguna bitartean.

Anartean, txerriki, antzarakiki eta ahateki mozkinak fabrikatzen dituen lantegi honen erabateko dekontaminazioa egin zuten ostiral eta larunbatan. Ezen, frantses osasun arloko administrazio zerbitzuek frogatu dutenez, 1999ko urriaz geroztik bi lagun heriotza eta beste lau-
ren pozoiatzea eragin duen



Merkatuetatik erretiratu dituzten hainbat produktu, Paul Prédault taldearen webgunean iragarrita.

listeriosis gaixotasuneko izurritearen sorburua enpresa hau izan zen.

Desinfekzio lanak abian

«Guzti-guztia desinfektatu egin dugu eta, horretarako, makinak oro banan-banan desmuntatu ditugu» azpimarratu zuen Olivier Bozok.

■■■ Listeria bakterioak ez die gizaki guztiei listeriosis gaixotasun arriskutsua eragiten

«Gauzak horrela, eta betiere osasun administrazioko zerbitzuen kontrolpean, datorren astearte arratsetik jarduerari berrekitzeko prest izatea saiatuko gara», gaineratu zuen Coudray enpresako burukideak.

«Osasun zerbitzuek eta guk geuk ere ingurugiroaren analisi sakonak egingo ditugu asteartean, makinetan zein ere

airean eta zoruan listeria bakterioaren zantzurik egoten ez dela egiaztatzeko», zehaztu zuen Olivier Bozok, «eta administrazioak, beharbada, azterketa horien ondorioak ezagutu nahi izango ditu jardueraren berriz hastea baimentzeko; horrek bi egun gehiago eskatuko du, beraz, osteguna arte» gaineratu zuen.

Listeria bakterioak ez die gizaki guztiei listeriosis gaixotasun arrikutsua eragiten. Adin handiko jendeen edo haurren zein emakume haurdunen eta gaixotasunen bat duten pertsonen artean da eritasuna hazten.

Izurrite alerta Frantziatik at zabaldua

Hala eta guztiz ere, Frantziako gobernu agintariek erabaki zuten joan den ostiralean Coudray enpresako jarduerak geldiarazi behar zirela eta han fabrikatuta zeuden txerri, antzara edo ahate gantxi-gorrak eta jelatuan jarritako urde mihikiak kontsumotik berehala kendu. Coudray enpresaren jabe den Paul Prédault nekazal-elikadura industria taldeko zuzendari-tzak ebatzi zuen, aldiz, fabrika hartan atondutako produktuak oro salmentatik kentzen zituela.

Frantzian zabaldutako listeriosis izurriteko alerta Europako Batasuneko zenbait herriei eta Suitzari zegokiela ere jakiterat eman zuen Nekazaritza ministerioak. Izan ere, Coudray enpresan fabrikatutako mozkinak banatuta daude baita ere Alemanian, Belgikan, Irlandan, Luxenburgan eta Suitzan.

‘Erika’ dela-eta, moluskuen hartzea debekatu dute

■ Jada merkatuan daudenak ez omen daude kutsatuta

Agentziak / Paris

ERIKA petroliontzia-
ren erre-
gaiak kutsatutako kostalde osoan moluskuen hartzea eta haztea debekatu zuen atzo Frantziako Elikagaien zuzendaritza nagusiak. Elikagaien Osasun Segurtasunerako Agentziak egindako aholkuei jaramon egin diete horrela agintariek, neurri batean bada ere, erregaiak kutsatutako lurraldeetako moluskuen kontsumoa debekatzea proposatu baitzuen agentzia honek.

Den den, dagoeneko merkatuan dauden moluskuek kutsadurarik ez dutela adierazi zuen Elikagaien zuzen-

daritza nagusiak atzo banatutako prentsa oharrean: «Albaitari zerbitzuek egindako azterketen arabera, batere arazorik ez da kontsumitzaileek eskuragai dituzte produktuak».

Bestalde, Triton izeneko urpeko robota Erika-ren kroskoa dagoen lekura bidean zen atzo, han behea jota dagoen Abyssub robota errekupekatzen saiatzeko eta Erika-ren kroskoaren irudiak hartzeko. Abeille Supporter atzo itsasoratu zen, Triton robota barruan zeramala. Abyssub robotak Erika-ren hainbat irudi hartu zituen, baina gero matxuratuta hondoan geratu zen.



FRANK PERRY / EPA

Ostra haztegi bat, La Bernerie-en-Retz herrian, Erika-ren erregaiak kutsatutako inguruetan.